



EUSKO JAURLARITZAK ETA EUSKAL UDALEN ELKARTEAK (EUDEL) HITZARMENA SINATU DUTE EUSKAL LURRALDE OSOAN BANDA ZABALAREN AZPIEGITURAK HEDATZEKO PROIEKTUA GARATZEKO

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak eta EUDEL-ek **Banda Zabalaren Azpiegiturak hedatzeko Proiektua** martxan jartzeko hitzarmena sinatu dute gaur goizean. Proiektuaren helburuak euskal gizarte osoari banda zabalaren bitartez internet tresnaren erabilera unibertsala erraztea eta kalitatezko zerbitzua erabiliz, Informazio Gizartearen zerbitzuak segurtatzea eta bermatzea dira.

Aipatutako planaren garapenak eta exekuzioak Eusko Jaurlaritzaren 12 milioi euroko inbertsio publikoa eskatzen du eta plana ezarri aurretik egoeraren azterketa zehatza egin behar izan da. Honela, Azpiegituren Batzordeak zenbait ikerketa egin du gure Erkidegoan ditugun telekomunikazio azpiegituren egoera nolakoa den jakiteko. Ikerketa hauen arabera ehun udaletik gora banda zabalaren azpiegitura eza jasaten dute. Horregatik, Plana gabezi horri aurre egiteko sortu da.

Inbertsio publiko garrantzitsu honen udal onuradunen gehiengoaren ezaugarriak, herri txikiak eta landa guneeetatik gertu kokatuta daudenak dira, eta gainera biztanle gutxi dituztenak. Gutxi gora behera, %37 Arabako Lurralde Historikoan kokatuta daude, %36 Bizkaian eta %27 Gipuzkoan.

Plana hedatzea, 2006 urte hasieran amaitu daitekeena, bi fasetan garatuko da:

- Lehenengoan, jarduera orokorra egingo da, noiz nahikoa kalitatez eta azkar hedatzen diren azpiegiturak erabiliz, helburu diren herri guztietan zerbitzua bermatu ahal izango den. Hala ere, azpiegitura finkeen paregabeko balioa kontuan izanik, lurraldean zuzenean eskuduntza duten erakundeek ekimen koordinatu baten bitartez agintari publikoek azpiegiturak erraztearen beharraz jabetzen da Gobernua.
- Bigarrenean, erakundearteko lankidetzak eta operadore pribatuen inplikazioa bultzatu eta bilatuko da, sare finkeetan oinarritutako banda zabaleko azpiegitura, etorkizuneko berme gisa hedatu ahal izateko.

Irrati teknologikoaren bitartez* banda zabala txertatzeko proiektua ITELAZPI, S.A. sozietate publikoak jarriko du martxan, gure lurraldean ezarrita dauden baliabide eta azpiegitura publikoak kudeatuko dituela, eta sare ezberdinen ustiaketa aurkitzen diren sinergiak aprobetxatuko ditu adibidez udal herri hauengandik gertu kokatuta aurkitu daitezken errepikagailuak erabiliz.

*Erabiliko den teknologia neutraltasun teknologikoaren oinarriekin egokitzen da eta operadoreei beste soluzio bat erabiltzeko aukera ematen die.